



Etzi emango diete hasiera Leitzako ihoteei egitarau oparoarekin

AUKERAK ▶ Lau egunez txaranga, txistulariak, kontzertuak, pailazoak eta karrozak izango dira, esaterako

ANTOLATZAILEAK ▶ Aurrera kirol elkarteak, Udala, Guraso Elkarteak eta Atekabeltza aritu dira ▶ 7

TOLOSA ▶

5.355 ikusle igaro dira Leidor areto berritik lau hilabetetan

Udalak 2006ko egitarauaren balantzea egin du ▶ 3

I. GARCIA



JEXUX MARI IRAZU ▶ BERTSOLARIA

«Plazaz plazako bertso aktualitatea era zabalean ematea dugu xede»

Bertsoa.com webgunearen aurkezpena egin berri du larrauldarrek ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

AHT proiektuari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte

Datorren astean, egitarau zabala ▶ 2

IPARRAGIRRE
SAGARROTEGIA

URTARRILAREN 27an IREKIERA

Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Asteazkenetik larunbatera gauz zabalik, larunbat eguerdian ere bai

www.iparragirre.com

IKAZTEGIETA ▶

Zabor bilketa
tasa agiriak
ordaintzeko
epea, zabalik

Borondatezko epea martxoaren 2ra arte ireki dute, udaletxean eta baketxeetan

N. URBIZU

2006. urteko bigarren seihi-labeteko zabor bilketa tasari dagokion errolda onartu egin dute Ikaztegiatan, eta honi dagozkion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarriak izan dira. Ordaintzeko epea martxoaren 2ra arte dago irekita. Ordainketa, berriz, banketxetan nahiz udaletxean egin ahal izango da. Helbideratuta dauden ordainagiriak hemendik hilabete eta erdira kobratuko dira, martxoaren 2an, hain zuzen.

TOLOSA ▶

'L' enfant'
filma gaur
zine-forumeko
saioan

ERREDAKZIOA

Gaur *L'enfant* filma emango dute zine-forumaren saio berri batean, Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean. Belgikako hiri batean kalez kale dabilen Soniaren istorioa kontatzen du filmak, semetxo jaio berriarekin, haurtxoaren aitaren bila.

Filmak, Jean Paul eta Luc Dardenne zuzendarien gidaritzapean, Film Onenaren Urrezko Palma irabazi zuen, Canneseko Zinemaldian, 2005. urtean.

AHT ▶

AHT proiektuaren
inguruko ekitaldiak,
hurrengo astean

Jardunaldiak, mendi martxa eta manifestazio bat antolatu ditu AHT Gelditu! elkarlanak bost egunetan zehar Tolosan



Joan den abenduan panel informatiboa jarri zuten Larratz zabortegiaren eta Hernialderen artean. N. URBIZU

NEREA URBIZU

AHTren aurkako Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak hurrengo astean zehar ekitaldiak antolatu ditu. Horien artean jardunaldiak Tolosako Kultur Etxean, Tolosaldean kaltetuko lituzkeen inguruetara mendi martxa eta manifestazioa izango dira. Ekimen hauekin AHTren egitasmoak «berekin ekarriko lituzkeen kalte ekologiko, sozial eta ekonomikoei buruz, edota nekazaritzari eta lurraldearen orekari eragingo lizkiekeenei buruz» ariko dira, «jendeak jakiteko, informatzeko, mobilizatzeko geldiarazteko». Tolosaldean «jada egiten ari garen oposizioa zabaldu nahi dugu. Horretarako AHTri emango zaion erantzun honetan jendearen parte-hartzea beharrezkoa da», azaldu dute.

Hala, «tren honen aurka, naturaren mugak errespetatzearen alde, diru publikoa xahutzearen aurka, demokraziaren alde» eta azken batean, «bestelako ekonomia garapen eredu baten alde» antolatu diren ekintza hauetan parte hartzeko dei egin dute elkarlanekoei.

Kapitalismoa irabazi maximoan oinarritzen dela aintzat hartuz, «ez da posible ekoizpena, garraioa eta kontsumoaren katea neurtua izatea, gehien-goaren beharrak asetzea, herriaren ongizatea, edota naturaren mugak errespetatzea globalizazio ekonomiko kapitalista desegin gabe».

Egungo agintariak Abiadura Handiko Trenaren proiektua «inposatu» nahi dutela diote elkarlanekoei, baina «gero eta gehiago gara Euskal Herrian proiektu inposatzaile honen aurka gaudenak», diote.

Taldearen salaketa

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak salaketa «larria» egin nahi izan du «governuek beraien nagusitasunari eutsi eta eztabaida sozialari aukerarik eman gabe AHT proiektua aurrera daramatelako». Izan ere, gatazka honek bizi duen alarman egoera azpimarratu dute, AHTren eraikuntza lanak hasi dituztelako eta «Ibarretxeren Gobernuak eta PSEk 2007ko aurrekontuetan 281 milioi euro onartu dituztelako txikizioa gauzatzeko». Halaber salatu nahi izan dute Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako «gastu sozialaren maila Europako Batasuneko herrialdeen baxuenetakoa» izanik, «premia larria dagoela oinarritzko errenta duina bultzatu, etxebizitza arazoak konpondu, osasungintza zerbitzua sendotu edo euskalduntze

EGITARAUA ▶

URTARRILAK 30, ASTEARTEA

19:30. Mahai ingurua: *AHTren inguruko herri kontsultak eta demokrazia*. Iñaki Barcena, Urbinako alkatea eta Danel Etxeberriarekin.

URTARRILAK 31, ASTEAZKENA

19:30. Mahai ingurua: *AHT eta eskualdeko harrobiak*. Txikizioa *gelditu!*, Tere Jauregizarrekin (Geziako kidea) eta biologo batekin.

OTSAILAK 1, OSTEGUNA

19:30. Mahai ingurua: *AHTren lurren expropiazioak*. Onintza Ostolza (EHNEko abokatua), Mila Elorza (AHT Gelditu! Elkarlaneko kidea) eta kaltetuekin.

OTSAILAK 2, OSTIRALA

19:30. Proiektzioa eta tertulia: *AHTrik ez! Gelditzea badago*. Italiako Susa bailarako AHTren aurkako borrokaren ikasgaiak; Mikel Alvarezekin (AHTren aurkako Asanbladako kidea).

OTSAILAK 3, LARUNBATA

09:00. Mendi martxa Triangulotik, AHTk kalteturiko inguruetara (3 ordu oinez).
12:30. Manifestazioa Triangulotik, *Jendartea eraldatu dezagun!*

prozesua indartzeko». AHT aurrera eramanez gero, hurrengo urteetan «9 000 milioi eurotik gora xahutuko ditu proiektuan».

Dirudienek, AHTk «bakarrrik hiriburua lotuko ditu: ez ditu garraio arazoak konponduko, eskualdeko joan etorriak biztanlegoaren eguneroko desplazamenduen %97 direlako. Euskal Herriko orografia kontuan hartuz, tunel, biaduktu nahiz harrobi ugari egin behar dira». Ondorioz «hidrologian eragingo duten eta lur eta ekosistema ugari suntsituko dituzten lurragi mugitzea eta hondakindegia handiak eraikitzea» dakar.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

OSASUNA ▶



Bularreko minbizia mintzagai

E. Ezeiza ▶ Bularreko minbizia izan zen hizketagai atzo, Kultur Etxean. Jendez josi zen areto nagusia non Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarteak antolatuta, gaixotasun hau zabaldu aurretik nola detekta daiteken azaldu zuen Donostiako Institutu Onkologikoko Lourdes Aritziturri doktoreak. Gero eta kontrolatuagoa egon arren, emakume askok pairatzen duten gaixotasuna baita bularreko minbizia. *E. E.*

GIZARTEA ▶



«Segurtasun eza» salatuz

E. Ezeiza ▶ LAB sindikatuaren ustetan, «urte larria» izan da 2006a, lan istripuei dagokionean. Horregatik, hau salatzeke elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean. Bestalde, Batasunak ere atxikimendua eman zion ekimenari, eta hauek ere bat egin zuten enpresari eta administrazioari zuzendutako salaketarekin. Lutzatutako datuen arabera, joan den urtean 129 langile hil ziren Euskal Herrian lan istripuz, eta horietako bat eskualdean. *E. E.*

KULTURA ▶

5.355 ikusle igaro dira Leidor aretotik lau hilabetetan

2006ko kultur balantzea agertu dute Udal ordezkariak; gustura daude antzoki eraberrituak jaso duen harrerarekin



Oskorri eta Kukubiltxoren emanaldia izan zen ikusienetako bat, denera 758 ikusle jaso zituen. *J. ASTIBIA*

ESTI EZEIZA

5.355 ikusle igaro ziren iaz Leidor aretotik. Urtebete eraberritze lanetan egon ondoren, irailaren 8an eman zioten ongi-etorria tolosarrekin antzokiari Euskadiko Orkestra Sinfonikoren kontzertuarekin. Hala, honen ondotik, film, antzerki, musika emanaldi eta abarrez gozatu ahal izan dute tolosarrak.

Herenegun aurkeztu zuten Tolosako Udaleko Kultur saileko arduradunek 2006. urteko kultur egitarauaren balantzea. Eta emandako datuen arabera, «oso gustura daude Leidor berrituak izan duen harrerarekin».

Andoni Iturzaeta zinegotziaren esanetan, «joan den urtean egindako apustu nagusietako bat zinemarena izan zen». Horren harira, ia desagertua ze-

goen haurrentzako programazioa berreskuratzea erabaki zuten. Zinemazale Elkarteak luzatu zuen proposamen hau, eta erantzun ona jaso du. Bestalde, elkarte honen eta kultur sailaren arteko lankidetzaren bitartez kudeatzen dute Leidorreko zine egitaraua, lehenengoak aukeratzen dutelarik programazioa.

Gabezia edo zailtasunen artean zine komertzialarena aipatu zuten Kultur sailekoek. Orohar, pelikula gehienak, Tolosara iritsi baino lehen ikusi ahal izaten baitira hiriburuetako zinemetan. Baina, honen aurka ezin dutela ezer handiegirik egin adierazi zuten arduradunek. Eta gaineratu zuten, «aurtengo zine programazioa ere lerro beretik joango da».

Bestalde, nabarmendu zuten, DVD euskarriko proiektorearen gabezia izan bada ere

orain arte, dagoeneko Udalbatzak onartu duela berritze hau. Antzokiaren kudeaketarekin jarraituz, hau izango da datorren urteko erronka handietako bat, hau oraindik ere eztabaidagai baitago.

Gipuzkoan erreferente

«Uneoro, eskaintza orekatu bat» egiten saiatu direla adierazi zuten Iturzaetak. Honi esker, eta Gipuzkoako bigarren antzoki handiena izatean, Tolosa erreferente bihurtu dela nabarmendu zuten Udal ordezkariak. Horren adibide da, iaz hainbat estreinaldi bertan gauzatu zirela: *Artea* eta *Ama quierro ser Lehendakari* antzezlanak eta *Kutxidazu bidea Ixabel* filma, esaterako. Bestalde, Kepa Junkerak Gipuzkoan emandako lehenengo kontzertua Leidorren izan zen.



www.eginbehardugu.com

Iturri: Oskorri; Argazki: Angel Ruiz de Maza

JEXUX MARI IRAZU ▶ BERTSOLARIA ETA BERTSOA.COM -EKO ARDURADUNA

«Plazaz plazako bertso aktualitatea modu zabalean eman nahi dugu»

Bertsoa.com webgunearen aurkezpena egin berri du Jexux Mari Irazuk



I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Jexux Mari Irazuk (Larraul, 1972) bultzatu du www.bertsoa.com webgunea eta bera da edukia berritzearen arduraduna ere.

Bertsolaritzaren inguruko webgune berria aurkeztu berri duzu.

Martxan jarri nahi genuen. Gero ikusiko dugu zer forma hartzen joango den.

Zein dira webgunearen helburak?

Bertsoa.com-ek lau ardatz ditu: plazaz plazako emanaldiak biltzea; bertso saioak zuzenean eskaintzea; bertsolaritzaren inguruko informazioa zabaltzea, agenda, albisteak, gogoetak... eta abar direla; eta bertso eskola digitala. Azken hau esperimentu bezala dago.

Zenbatero berrituko da informazioa?

Aktualitateak eskatzen duenaren arabera. Ahalik eta hurbilen jarraituko dugu. Bertso Egunaren aurkezpena egin dutenean, egun horretan eman genuen horren berri, bideo eta guzti. Astero 3-4 saioen berri emateko asmoa dugu. Hori osatzeko Bertsozale Elkartearen Xepelak Dokumentazio zentroarekin elkarlanean ariko gara.

Zuzenean bertso saioak ematea da erronketako bat.

Bizkaiko Txapelketako finala eman genuen eta larunbatean [etzi] Donostiako Kurasaalen egingo duten Bertso Eguna emango dugu. Saioak egiten diren lekuak dituen baliabideen arabera izango da.

Zer eskaintzen dio webgune honek bertsolaritzari?

Plazaz-plazako bertso aktualitatea modu zabalean ematea. Irratiak eta telebistak denboraren mende daude. Internetak nahiko espazio du, eta oraingo zabalkundea izan liteke muga. Bertsoa.com-en ekarpen handiena bertsoaren munda modu zabal eta aktualean eskuratu eta hedatzeko aukera ematen duela da.

Zer osasun du bertsolaritzak?

Gero eta gehiago gara lan-dedikazioa bertsolaritzaren bueltan landu nahi dugunok. Horrek gauza gehiago egitea ekartzen du. Bertsolaritzak zabalkundea du, garrantzia du gizartean. Urteetan egindako oinarritzko lanaren emaitza da.

ANOETA ▶

EHNA egiteko aukera etzi udaletxean

EHNA tramitatzeko aukera egongo da Anoetako udaletxean, etzi, larunbata, 11:00etatik 13:00etara. EHNA egiteko ondorengoak behar dira: Errolda agiria (udaletxean eskatu), 3 argazki, 15 euro eta 14 urtetik berakoek familia liburuaren fotokopia.

GIZARTEA ▶

Jesusen Bihotza, Sahararentzako laguntza eskertuz

Jesusen Bihotza Ikastolak, *Piztu itxaropena* kanpainarekin bat eginik, «herri honek duen solidaritate maila oso altua dela erakutsi du oraingoan ere», azaldu du. Parte hartu duen ikasle, guraso eta irakasle guztiei eskerrak luzatzen dizkiete. «Zuen laguntzari esker abiatuko da kamioi karabana bat Tindufin (Aljeria) dagoen saharar errefuxiatuen kanpamendura», azaldu dute ohar batean Ikastolatik.

GIZARTEA ▶

Ingelesez praktikatzeko deialdia

Iaz talde bat hasi zen elkar-tzen ingelesa praktikatzeko asmoz. Aurtun ere animatu dira eta deialdia luzatzen dute nahi duten guztiek ere parte hartzeko. Hamabostean behin bost lagun biltzen dira ingelesez hitz egiteko. «Hasieran denok lotsa pasa genuen baina orain hola edo hala moldatzen gara, eta hanka sartzeak elkarri zuzentzen dizkiogu», diote taldeko kideek. Interesa dutenek Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatearekin harremanetan jarri daitezke 943 69 39 30 zenbakian.

TOLOSA ▶

Hirukideren zesta punta partida bihar

Eskolarteko zesta punta partida jokatu du bihar Hirukide taldeak Donostia taldearen aurka. Beotibarren izango da norgehiagoka eta 18:45ean hasiko da.

Bertso plaza digitala abian

Bertsoa.com helbidera sartuz gero lau atal nagusi ditu: albisteak, saioak zuzenean, bertso onenak eta plazaz plaza. Azken honetan, herri ezberdinetan bilduriko bertso saioak daude. Bertso onen atalean, saio batean egindako bertsoen antologia aurki daiteke.

Atal nagusiez gain, bertsolariei buruzko biografiak, gogoeta foroa, agenda, argazkiak eta bertso eskola digitala atalak daude. «Jende ugari ari da sartzen, jaso ditudan datuen arabera», azaltzen du Jexux Mari Irazuk. Datuei dagokionez, harritura dago webguneak Ameriketako internet erabiltzaileengandik jaso dituen bisitak ikusita. ◀



Bertsoa.com helbidearen atzoko hasiera orria. HITZA

iragarki laburrak ▶

LANA

Gidaria. Egurretan ibiltzeko gidaria behar da. Deitu 626 71 46 96 zenbakira.

Zerbitzaria. Neska euskalduna eskaintzen da zerbitzari lanetarako.

Eguerditan, asteleheneetik ostiralera arte. Deitu 695 75 70 45 telefono zenbakira.

Sukalde laguntzaileak.

Eskoletarako, udaletarako. 943 44 48 66

Gidariak. Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

Zerbitzaria. Neska euskalduna behar da tabernarako. Goizeko 07:00etatik eguerdiko 13:30ak arte. Igandeak jai. 650 48 79 34.

EGURALDIA ▶

Kalera ere heldu da

Beheraino jaitsi zen atzokoan elurra; dena den, herri txikietan bizi direnek jasan zituzten, batez ere, ondorioak

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun mendira eta herri batzuetara iritsi bazen, atzokoa bi eskualdeetako herritar guztiek ikusi ahal izan zuten elurra gertutik. Izan ere, egun osoan zehar, etengabe izan ez bazen ere, elurra egin zuen mara-mara, gure txokoak zurituz eta ikuspegi ederrak utziz. Ohikoa den bezala, gaztetxoek gozamenerako elurrarekin jolasteko aitzakiarik ez zen falta, baina elurrak uzten dituen ondorioak, batez ere errepidean, agerian geratu ziren.

Tolosan, Samaniego-Orixen nabaritu zuten gehien elurra eragina; hala, bertako autobusak ezin izan zuten Orexara igo, ez eta, Berastegira, Bidaniara, Urkizura, Hernialdera, Leaburura, Gaztelura eta Belauntzara ere. Herri hauetatik ikastetxera joan ahal izan zutenak euren gurasoek autoz eramanean ziztutelako izan zen. Laskorainen, ez zuten arazo handiegirik izan autobusari dagokionez, eta Hirukiden ere elurrak ez zuten arazo handiegirik sortu, soilik Eskolapioen egoitzan, bertara goizean ezin izan baitzuten autobusak igo. Ikastetxeetara doazen autobusez gain, bai Tolosaldea autobusak bai eta Donostiara doanak eta trenak ere izan zituzten arazoak atzokoan.

Alegiako eskolan, bestalde, gorabehera handiegirik gabe joan zela eguna azaldu zuten: «ume gutxi batzuk soilik ezin izan dute etorri eskolara, Balia-rainera eta Orendainera ezin izan duelako igo autobusak», adierazi zuten atzo bertatik.

Leitzako Erleta eskolan baino institutuaren arazo handiagoak izan zituzten atzokoan; goizean goiz, esaterako, atezaina eta 3 irakasle baino ez ziren iritsi, orotara 26 irakasle direnean. Halaber, Goizueta, Lekunberri eta Beteluko ikasle gehienek eta baserrietan bizi direnek ezin izan zuten joan. Hori dela eta, eskolak bertan behera uztea erabaki zuten goizak aurrera egin ahala.


Bestelako arazoak

Elurtearen ondorioz, Karrape irratiko errepikagailua hondatu egin zen, eta atzo egun osoan ez zen irratia entzuteko aukerarik egun, eta ez dakite zenbat egunez iraungo duen matxurak. Irratiaz gain, telebistarekin eta argindarrarekin ere arazoak izan zituzten atzo Leitzan.

65 zentimetro batu zituzten atzo Leitzan; ikusi beharko da gaurkoan zer ondorio uzten dituen elurrak, izan ere, iragarpenen arabera, gaurkoa izango da egunik gogorra.



Itxura hau ageri zuen atzokoan Tolosako Alde Zaharrak. I. TERRADILLOS



Villabonatik ikusita, Loatzo mendia txurrituta ageri zen atzo, arratsalde partean. I. GARCIA

ELKARTASUNA ▶



Sahararako janari bilketa amaitzean da

I. Terradillos ▶ Pasa den abenduan hasi eta aste honetan amaituko da Sahararen Aldeko III. Euskal Karabana. Aurtengoa, dilistak, arroza, azukrea, hegaluzea eta konpresak biltzen ari dira, eta Tolosaldea Sahararekin elkarrekin adierazi duenez, dagoeneko 4.100 kilo jaso dituzte. Oraindik, beraz, badaigo aukera elikagaiak eman eta 7.000 kilora helduz aurtengo erronka betetzeko. Argazkian, ezkerrean, elkartekoak atzo, janaria kaxetan gordetzen eta eskuinean, Laskoraingo janari biletako txokoa. I. TERRADILLOS

LIZARTZA ▶ HIRIGINTZA

104 etxebizitza berri eraikitzea baimendu du Foru Aldundiak

Hiri antolaketako arauak berrikusi ondoren, etxebizitzet gain kolektorea osatzea eta araztegia egitea ere onartu du

ERREDAKZIOA

Hiri antolaketako arauak berrikusi ondoren, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuak Lizartzan 104 etxebizitza eraikitzeak erabakia hartu du. Etxebizitzak eraikitzeaz gain, kolektorea osatu eta araztegia egiteko asmoa du sailak. Gipuzkoako Foru Aldundiak Lizartzako Hiri Antolaketa Arauen Berrikuspenera onartu du. Dokumentu berriak orain arte indarrean egon diren arauen tokia hartuko du; arau horiek 1988. urteko ekainean onartu zituzten eta indarrean egon diren bitartean lau aldaketa izan dituzte.

Koldo Azkoitia Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako saileko diputatu eta Foru Aldundiako bozeramaileak adierazi duenez, «oinekoentzako bideei eta zuzkidura ekipamenduei dagokionez egungo hiri egituraren barnean antzemandako hutsuneak betetzea

eta egitura hori sendotzea da arauak berritzeak dokumentuaren helburu nagusia».

Azkoitiak azpimarratu duenaren arabera, «hirigintzako dokumentuak aukera ematen du 104 etxebizitza berri egiteko, horietatik 26 babes ofizialekoak izango lirateke eta beste 8 gaur egun hirugunean dauden etxe batzuk bota ondoren egingo liratekeenak». Etxebizitza horietatik gehienak pisuak izango dira. Zuloagari dagokionez, dentsitate gutxiko familia bakarreko sei etxebizitza egingo dira.

Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako departamentuak adierazi duenez «garrantzia handia du zerrategia arean aurreikusitako jarduerak, 56 etxebizitza egin nahi baitira bertan, horietatik 26 babes ofizialekoak».

Eremu horren garapena dela eta, Udalak dohainik eskuratu ahal izango ditu, alde batetik, 1.800 m² inguruko lur zatia, es-

kola erabilerarako definiturikoa. Bestetik, espazio librean dotazioa. Foru Aldundiaren erabakiak ezarritakoaren arabera, «eremua baino beherago dagoen zubia aldatu behar dute, ubidea hobetu eta naturalago bat jarri, egun dauden hormak kenduta uholde arriskua gutxitu nahi baitute».

Ekonomia ekipamenduak

Ekipamenduen harira Koldo Azkoitiak adierazi duenez, «gaur egun dauden ekipamenduak eta ikastetxerako definituriko lur zatia finkatu dira testu berrian». Jarduera ekonomi-

BABES OFIZIALEKOAK

104 etxebizitzetatik 26 babes ofizialekoak izango lirateke, Lurralde Antolaketa sailaren arabera

koetarako aurreikusitako lurzoruari dagokionez, berrikuspeneraren bitartez Insaluz, Iruntzialdea eta Goikoetxeandiar lurzoru industriak finkatu dituzte. Bestalde, ez da onartu azken gune horretarako aurreikusitako eraikuntza jarduera, hau da, 500m²ko azalerako lursaila jartzeko proposamena, «uholde arriskua duen eremuan» dagoela uste baitu Departamentuak.

Komunikazio azpiegituren kasuan, onartutako dokumentua GI-2135 errepidearen egungo zeharbidea egokitzeko proposamenaren alde egiten du sailak, «zirkulazioa lasaigo izateko eta eraikuntza bi aldeetan lotura hobetzeko».

Saneamendu sareari dagokionez, «oraindik ere ur zikinak garbitu gabe botatzen direnez Lizartza ibaira» kolektore nagusia osatzea eta herrigunearen behealdean araztegi bat egitea proposatu du Departamentuak.

Azkoitiak azaldu duenez «berrikuspenera, udaletxearen eta osasun zentroaren inguruan dauden espazio libreak jasotzen ditu baita Zerrategia area eta ibaiaren ondoan aurrikusia dagoen pasealekua». Hirigintzako dokumentuak 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruan eta Hirigintzan, xedatutakoa bete beharko du eta indarrak gabe geldituko dira legea betetzen ez dutenak. Udalak 3 hilabeteko epea du, testua onartu eta Aldundira bidaltzeko.

IBARRA ▶

Eskuz binakako pilota finala izango da etzi

Gaur da azken eguna finalaren ondoren izango den afarian izena emateko

M. SOROA

Urtero moduan, Atari tabernan eskuz binakako pilota txapelketa antolatu dute herritarrek. Guztira 32 lagunek eman dute izena, 16 bikotek, hain zuzen ere. Urriaren ekin zieten partidei eta kanporaketak joan eta etorri, bi bikote izan dira finalera iritsi direnak, Aranaldek eta Atxuk osatzen dutena eta Balardi eta Bengoetxearena.

Etzi izango da final handia, 18:00etan Ibarako Belabieta kiroldegiko frontoian. Artetikariak ere izango dira bertan apustuak egin nahi dituen ororentzat. Partidaren ondoren, afaria izango da partehartzaile eta herritarren artean. Afarian izena emateko azken eguna gaur izango da, beraz, interesatuek Atarin eman dezakete afaria joateko izena. Ondoren «parranda» egiteko aukera izango da adierazi dutela antolatzaileek.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Santa Ageda bezperako santa eskea antolatu du Hauspoa elkarteak

Gaur da egunean zehar antolatu dituzten ekintzetan izena emateko azken eguna

ERREDAKZIOA

Ibarako Hauspoa kultur elkarteak otsailaren 4an —Igan-dea— Santa Ageda eskea antolatu du. Ekintza honetan parte hartu nahi dutenek herriko elkarteetan edota ohiko tabernetan jarri diren zerrendatan izango dute izena emateko aukera. Gaur izango da horretarako azken eguna.

Interesatuek, norberaren izena eta abizena emateaz gain, egunean zehar antolatu-tako zein jardueratan parte

hartuko duten zehaztu beharko dute. Aurten Santa Ageda eskea egun guztian zehar izango da eta honako programa antolatu du Hauspoa elkarteak.

Goizeko ekitaldiei dagokionez, 09:30ean abiatuko da taldea San Bartolome plazatik eta ikastola dagoen alderdian —Ospela— baserriz baserri ariko da kantari. Eguerdian, indarrak berritzeko parada izango dute Sendi-Ekintza elkartearen antolatutako bazkarian. Bertara azaldu nahi duenak 12 euro ordaindu beharko ditu.



Iaz Santa Ageda bezperan Ibarako herritarrek kantatzen aritu zireneko irudia. HITZA

Arratsaldean, berriz, 17:00etatik aurrera abiatuko da taldea herrikuko plazatik, oraingoan, Izaskun aldera (egutera) joango da.

Entseguie dagokionez, hila-

bete honen 30ean, 31n eta otsailaren 1ean, izango dira iluntzeko 20.00etatik aurrera udaletxe azpian.

Hauspoa kultur elkarteak arduradunek deialdi berezia

egin nahi izan dute eta adierazi dutenaren barabera, «Santa Ageda bezperako egunean antolatutako ekintza honetan parte hartzera animatu nahi ditu herritar guztiak».

LEITZA ▶ IHOTEAK

Adin guztientzako jendeari zuzenduriko ekitaldi ugari antolatu dituzte ihoteetarako

Aurrera kirol elkarteak, Leitzako Udala, Guraso Elkarteak eta Atekabeltza Gaztetxearen artean antolatu dituzte 4 egun hauetarako ekitaldi guztiak



Aurreko urteko makillaje tailerra. J. ASTIBIA

ERREDAKZIOA

Aurtengo ihoteetan zer ikusia izanen da herria. Kontzertuak, perkusioa, txaranga, txistulari eta trikitilariak, Txu-Txu trenak, pailazoak, umeentzako tailerak, txokolatada, karrozak eta

beste hainbat gauza antolatu baitituzte adin guztietako jendea ase dadin. Eskea herriko ohitura nagusienetarikoa izanik, hiru egunetan ibiliko dira atsauretuta etxez etxe herritarrek. Baserrietara igo baino lehen etzi

arratsaldean herriko etxeetan ibiliko dira eskean. Astelehenean eta asteartean, berriz, baserrietan. Musikan ere aukera zabala izanen da. Larunbatean Donetzabeko Perkusio taldearen kalejira, eta Exum eta Nukat

taldeen kontzertuak izanen dira. Incansables txaranga, berriz, igandean, astelehenean eta asteartean herriko txokoak alaituko ditu. Gau-Bela taldeak hiru egunez joko du karrapeman, igandean, astelehenean eta asteartean. Igandean, 14:30ean atsauren herri-bazkaria egingen da, beraz, nahitaezkoa da atsauretuta joatea. Asteartea izango da umeen egun handia, baina hala ere, igandean bertan, Txu-Txu trenak gozatzeko aukera izango dute, bai goizez, bai arratsaldez ere, eta astelehenean ere txiki-zakozko puzgarriak jarriko dituzte Amazabal pilotalekuan. Popi, Zarratrako eta Fer pailazoak zinean izanen dira astearte goizean. Arratsaldean makillaje tailerra egingen dute. Honen ondoren beste zenbait sorpresa izanen dituzte: txokolatada, buruhandiak...

POLITIKA ▶

Mobilizazioak egingo dituzte Segiren auzia dela eta

Tolosan eta Leitzan manifestazioak egingen dituzte Segiren auzia salatzen

ERREDAKZIOA

Tolosako Segik Borroka Egunera deitu du gaur Tolosako ikastetxeetan, *Jarrai-Haika-Segi auzia* dela eta. Gazte Independentista Taldeak antolatuta manifestazioa egingen dute 11:30ean. Arratsaldean Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta manifestazioa aterako da Triangulotik, 19:30ean. Bestalde, gaur iluntzeko 20:00etan manifestazioa aterako da plazatik *Hitza eta erabakia*. Askatasunez lelopean. Manifestazio honekin «Auzitegi Gorenak euskal gazteria kriminalizatu eta espetxeratu» nahi duela aldarrikatu nahi dute. Joan den ostiralean Auzitegi Gorenak Jarrai, Haika eta Segi «organizazio terroristak» izateaz akusatu zituen eta 23 pertsona atxilotzeko agindua eman zuen.

IHOTEAK ▶ EGITARAUA EGUNEZ EGUN

ILBELTZAK 27, LARUNBATA
16:00. Eskea herriko etxeetan. Trikitilariak, txistulariak, akordeoi-joleak eta abxauratuak ibiliko dira.
20:00. Donezabeko Perkusio taldearen kalejira herrian barrena.
00:00. Atekabeltza Gaztetxeak antolatuta, kontzertua izango da bertan: Exum eta Nukat taldeak.

ILBELTZAK 28, IGANDEA
12:00. Atxaureak Incansables txarangaren eskutik; plazatik

aterako dira. Karrozak, berriz, ohiko lekutik: industrialdetik.
12:00. Txu-Txu trenak herrian barrena ibiliko da.
14:30. Atxauren herri bazkaria.
16:00. Txu-Txu trenak herrian ibiliko da.
18:00. Incansables txarangarekin atxaureen kalejira eskoletatik.
19:00. Gau-Bela taldea karrapen.
23:30. Gau-Bela taldea karrapen. Ondoren Incansables



2006ko umeen kalejira. J. ASTIBIA

txaranga herriko txokoak alaituko ditu.

ILBELTZAK 29, ASTELEHENA
9:00. Baserrietako eskea. Gorritaran, Arkixkil, Sakulu eta Errekara puske biltzea, herriko txistulari eta Incansables txarangarekin.
16:00. Txiki-zakozko puzgarriak herriko Amazabal pilotalekuan.
19:00. Gau-Bela taldea karrapen.
23:30. Gau-Bela taldea karrapen. Ondoren txaranga.

ILBELTZAK 30, ASTEARTEA

9:30. Baserrietako eskea: Erasote auzoa.
11:30. Popi, Zarratrako, eta Fer pailazoak zinean.
14:30. Aurrera elkartearen bazkaria.
15:00. Makillaje tailerra ume eta gaztebozontzat udalbeko lehenengo pisuan.
17:00. Umeen kalejira Incansables txarangarekin.
18:00. Txokolatada, buru handiak, trikitilariak plazan. Ondoren goxokiak banatuko dira.
19:00. Gau-Bela taldea.
23:00. Gau-Bela taldea.



Harpidedunen txokoa

Egin zaitetz harpidedun!

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharpenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honekin!
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Villabona. Patxin eta Potxin pailazoan emanaldia HH eta LHko ikasleentzat 15:30ean Jesusen Bihotza ikastolan, Kultur Astearen baitan.

Ibarra. Otsailaren 4ean Santa Ageda bezpera ospatuko da. Kantuan ibiliko dira eta eguerdian bazkaria izango da Sendi Ekintzan. Izen-ematea bihar arte, herriko elkarte eta ohiko tabernetan.

Tolosa. Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du Pirinioetara asteburu honetarako: Hiru Erregeen Mahaia eta Abxerito mendiak igoko dituzte. Izen-ematea, 637 830380 zenbakian.

ZINEMA

Tolosa. *L'enfant* filma emango dute zine-forumean, Leidorren 19:15ean eta 21:45ean.

ERAKUSKETAK

Ibarra. *Amesgaiztorik ez!* izenburupean hiri hondakinen inguruko erakusketa abian da Ibarra Kultur Etxean. Erakusketa bihar arte izango da zabalik 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

Tolosa. *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* erakusketa horma-irudien erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian otsailaren 24ra arte.

Alegia. Isabel Mujikaren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan ikusgai, otsailaren 12ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Wazemank telebista saioko esketak bertsotan eman zituzten. I. GARCIA



Ipar Amerikako indiarrei buruzko kanta bat antzeztu zuten. I. GARCIA

Haurrek gurasoentzat

VILLABONA ▶ Jesusen Bihotza Ikastolak antolatu duen I. Kultur Astearen baitan Lehen Hezkuntzako ikasleek emanaldiak egin zituzten atzo Gurea aretoan



Astoa ikusi nuen abestia antzeztu zuten. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Abestiak, bertsoak, dantzak, txisteak... Denetatik egin zuten atzo Jesusen Bihotzako Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleek —Villabonakoekin zein Zizurkilgoekin— beraien gurasoen aurrean. Gurea aretoa goraino bete zen. Antzezleak ere ez ziren gutxi: 280 haur inguru aritu ziren eskenatokia. Ikastolak I. Kultur Astea antolatu du egun hauetarako eta horren baitan kokatzen da atzoko emanaldia. Herenegun izan behar zuen, baina ekaitzak argirik gabe utzi zuen aretoa eta horregatik egun bat beranduago egin behar izan zuten.

Atzoko beste ekitaldi bat Bittor Ormaetxea pediatrak emandako *Nutrizioa eta arreta arazoak haurtzaroen* hitzaldisolasaldia izan zen. Gaur ere izango da ekitaldirik. Patxin eta Potxin pailazoek 15:30ean Ikastolako ganbaran beraien ikuskizuna emango dute HHko eta LHko 1. zikloko ikasleentzat.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iker Iribar (Ibarra).
 Gaur 4 urte. Muxu handi bat ebekoan partetik.



URTE ASKOAN
Ainhitze Aranalde Zabaltza (Gaztelu). Gaur 5 urte. Muxu potoloak ebekoan partetik.



URTE ASKOAN
Xabi Izagirre.
 Zorionak!!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko eztejak, ezkontzak, jaioberriak...